

*Gida didaktikoa*

HAN ETA HEMENGO  
IPUINAK I

**HIRU HARTZAK**

# HIRU HARTZAK

## Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

**Bibliografia** 15.or.

**Egileak** 16.or.

## **GIDA DIDAKTIKOA.**

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekaturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu.

Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea.

Lanari funtzionalitaterik handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea. Proiektua hauxe litzateke: gelan ipuinak elkarri kontatzea, ondo pasatzeko.

Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak antola daitezke. Beste aldetik, Barbantxok duen arazoa beste hurrek ere izan dezakete, batzuen gehiegikeria jasan behar izaten baitute. Horren gaineko "eztabaida" egin daiteke, talde txikian.

## **JARDUERAK:**

### **1.- Ahozko hizkuntza:**

Proiektua: Talde batek ipuina ikusiko du eta, besteei kontatzeko, paperez egindako siluetak erabiliko ditu.

## **FASEAK:**

### **a) Mezuaren planifikazioa:**

Kontakizuna prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan dago ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera.

Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: Ipuinak hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, hurrek kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

Adibidez:

Hartz txikiak munstro bat zegoela oihukatu zuen. Zergatik?

### **SEMANTIKA:**

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: masusta, gizakia, eztia, basoa, koilara, handia, ertaina, platera...

**b) Testualizazioa:** (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak eta eman AHOSKATZE eta

INTONAZIO EGOKIA).

AHOTSAK: ondo zehaztuko ditugu narratzailea eta pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

• Pertsonaien siluetak egin eta hurrek silueta bana hartutakoan, ipuinaren laburpena antzeztuko dute. Hartara, ikasle guztiek jakin behar dute zenbat pertsonaia diren eta zer esan behar duten. Ez ahaztu haur batek narratzailearen rola egin behar duela.

## KOHESIOA

Narratzailearen rola zehazterakoan, honako edukiak lantzeko aukera izango dugu:

### Izenen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura.

Aditz-denbora eta aspektua: denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a,

### Ariketa kontrolatuak:

FUNTZIO jakin batzuetan zer hizkuntza erabil daitekeen irakasteko edo ikasitakoa praktikatzeko:

Jarduera: Elkarrizketako zati honen imitazioa. Zerbaiten berri harriduraz ematea ("Hartz txikia") eta azalpenak ematea .

Hartz txikia.- (Offean.) Agggg! Nork ukitu ditu nire zopa eta nire koilara! Hau nazka!

Hartz txikia.- (Plateraren ondoan). Ama, begira nire zopari eta nire koilarari. Norbaitek erabili ditu!

(Ama eta aita ondo-ondoan dira, begira).

Hartz aita.- Ez esan lelokeriarik! Guk ez dugu ukitu!

Hartz txikia.- Nik ez dut jango!

Hartz ama.- Hartu nire platera, eta jan ezazu.

• Elkarrizketako zati honen imitazioa: Beldurra adieraztea (Hartz txikia) eta lasaitzea (Gurasoak).

Hartz txikia.- Ama, aita!

Aita.- Zer gertatu da? Ama.- Zer dira oihu horiek?

Hartz txikia.- Munstro bat dago nire ohean!

Ama.- (Lasaitu nahian). Munstroak ez dira existitzen, seme! Ez adarririk jo!

Aita.- (Eskutik heldu dio). Ikus dezagun zerk beldurtu zaituen. Seguru itzalen bat ikusi duzula!

Hartz txikia.- Ez, aita! Munstro bat ikusi dut!

Aita.- Ezin liteke, ez dira existitzen eta! Tira, nerau joango naiz...

Aita.- (Offean). Ikusiko duzu nola ez dagoen ... E? Zer egiten du honek hemen?

Aita.- Ez da munstro bat, gizakien kume bat baizik! Galdu egingo zen, eta gure etxean babestu da.

Ama.- Lasai, seme, honek ez digu minik egingo.

Aita.- (Amari). Zer egingo diogu?

Ama.- Nekatuta dagoela ematen du. Utzi lo egiten eta, esnatzen denean, etxerako bidea erakutsiko diogu.

- Elkarriketako zati honen imitazioa: argibideak ematen, norberaren datuak ematen.

Hobe da ekintza hau haurren datuekin egitea.

(Neskak, beldurtuta, atzera egin nahi du, hormaren kontra).

Hartz txikia.- Ez beldurtu, ez gara gaiztoak.

(Marrubiak eskaini dizkio).

Hartz txikia.- Torizu, goseak egongo zara.

Neska.- (Hartu egin du eskaini dion katilukada marrubia).

Aita.- Horixe bera egingo dugu, gosaldtu, bai jauna! Ni ere goseak nago! Zuek orraztu eta garbitu. Guk, bien bitartean, gosaria prestatuko dugu.

Ama.- Gurasoak kezkatuta edukiko ditu. Etxera eramango dugu.

Aita.- (Hartz txikiari.) Prestatu mahaia. (Neskatilari.) Moztu ogia eta jarri platerean. Torizu labana hau, eta kontuz ibili, ez ebaki behatzik!

(Denak gosaltzen ari dira).

Ama.- Non bizi zara?

Neskatila.- .....

Aita.- Ez dakizu izena?

Neskatila.- Bai...

Ama.- Ederki, badakigu non den. Gosaldtu eta gero, bertaraino lagunduko zaitugu.

- Azaldu haur-talde bati masustazko mermelada egiteko pausoak. Haurrekin egin ahal izateko, talde bakoitzean ume batek azalduko du. (Sukaldeko txokoa, egunean talde bat, baina, dena irakasleak azaldu beharrean, haurrek irakaslearen laguntzaz).

### **AHOTSAK:**

- Pertsonaia ezkutua: Irakasleak pertsonaia baten silueta ezkutatu du. Haurrek nor den esan behar dute, irakasleak esaten duenaren arabera:

Adibidez: "Lagundu, lagundu! Behiaren sabelean nago!" "Guk zu zapaltzea nahi ez baduzu, hobe duzu erditik kendu, aditu?... Nork esanak dira?"

### **DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:**

- Egin galderak: Neskatala, hasieran, norekin ari zen jolasean? Neskatalak aurkitu zuen etxea norena zen? Nork jan zuen hartz txikiaren zopa? Zergatik ez zuen baimena eskatu zopa jateko eta ohean etzateko?
- Gezurrak kontatzen: Hartz txikiak, galdu zenean, gizakien etxea aurkitu zuen. Neskari bere gurasoek eskuak zikintzeko esaten zioten. Neskak, hartzen etxean sartu baino lehen, baimena eskatu zien. Hartz txikiak ezagutzen zituen gizakiak, eta ez zen beldurtu. Neskaren gurasoak poztu egin ziren galdu zenean.

**ADITZ-KOHESIOA:** figura, hondoa, denborazko antolatzaileak, aditz-aspektua:

- Egin honelako galderak:

Neska egunero galtzen zen ala behin batean galdu zen?

Neska noiz galdu zen, afaldu eta gero ala afaldu baino lehen?

Hartzek noiz eramán zuten neska etxera, hurrengo egunean ala handik bi egunera?

Neska egunero joaten zen hartzen etxera ala behin joan zen?

...

## 2.- IDATZIZKO HIZKUNTZA:

Proiektua: Ipuin-bilduma egitea.

Idatzi ipuina, marraztu, margotu eta jarri azala.

(Ipuinaren luzera ikasleen idazmenaren arabera izango da).

Idazten dakitenek zirriborroa egin dezatela, eta irakasleak zuzenduko die. Garbira pasatu ondoren, egin marrazkiak eta egin azala, izenburua jarrita.

Idazten ez dakitenentzat:

Ipuina idazteko, hurren diktaketan oinarritu gaitezke. Pasatu testu hori garbira eta eman fotokopia hurrei.

Bestela, honelako zerbaitekin ematen ahal zaie, folioetan banatuta, marrazkia egin dezaten.

- Egun batean, neska bat basoan galdu zen, eta gaua han eman zuen.
- Etxe bat aurkitu zuen. Han sartu zen, eta hiru plater, hiru koilara, hiru aulki eta hiru ohe aurkitu zituen.
- Goseak eta nekatuta zegoenez gero, zopa jan zuen, eta ohe handiengan etzan zen.
- Etxean, hartz-familia bat bizi zen, eta, etorri zirenean, hartz txikia beldurtu egin zen.
- Baina, gero, adiskide handiak egin ziren.
- Hurrengo egunean, hartzek neskari etxerako bidea aurkitzen lagundu zioten.
- Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Derioko plazan.

Azala hurrek idatz dezakete.

Irakurtzen eta idazten hasteko, honelako ariketak egin daitezke:

- Emandako hitzen artean, aurkitu hitza: "masusta", "gizakia", "eztia", "basoa", "koilara", "handia", "ertaina", "platera", "ohea"...
- Emandako hitz baten bariazioen artean, bereizi eredu bezalako dena: "gizakia", "eztia", "basoa", "koilara", "handia", "ertaina", "platera", "ohea", "aulkia", "masusta", "hartza", Gizakia, Bizakia, Dizakia, Gizakio, Gizalia...
- Kopiatu honako hitzok eskuz, eta marraztu: "gizakia", "eztia", "basoa", "koilara", "handia", "ertaina", "platera", "ohea", "hartz txikia" "hartz handia" eta "hartz ertaina".
- Honako hitzen artean, aurkitu berdintasunak: "gizakia", "eztia", "basoa", "koilara", "handia", "ertaina", "platera", "ohea".
- Osatu hitza: Gi\_\_ak\_\_ia, G\_\_zak\_\_a...

## **2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.**

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 12/16 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

### **Gidoi literarioa:**

#### **IZENBURUA: Hiru hartzak**

NARRATZAILEA: (OFF) Behin batean, Izaban familia bat bizi zen. Aita, ama, alaba eta euren txakurra: Txuri. Anek eta Mikelek asko maite zuten euren alaba. Oso neskato polita zen, eta Txuri zen bere lagunik gogokoena. Beti zebiltzan jolasean.

EIDER: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Egun batean Anek eta Mikelek mendira txango egitea erabaki zuten, hartara Eiderrek eta Txurik naturaz gozatu ahal izango zuten eta egun osoa jolasean eman. / Baina ikusiko duzue, Eider bihurri samarra zen. Eta egun hura ez zen batere lasaia izango, ez behintzat hasiera batean Anek eta Mikelek uste bezain lasaia.

EIDER: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

AMA: Har ezazu ogitarteko bat, eta jan ondoren, joan zaitezke jolastera.

AITA: Ea, Eider, zein nahi duzu?

EIDER: Gazta-ogitartekoa.

AITA: Hartu, hemen duzu.

EIDER: Eskerrik asko.

AITA: Jan asko, alaba!

AMA: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Gurasoek ez zioten uzten Eiderri nahi beste bihurrikeria egiten, eta batzuetan errieta egin behar izaten zioten. Hala ere, asko bai asko maite zuten.

EIDER: Txuri, zatoz hona, torizu!

TXAKURRA: (AD LIB)

AITA: E! Baina Txuri! / Txuri, ez jan. Eider, ez eman zeuretik, lerdez zikinduko dizu eta.

AMA: Eider, ez eman txakurrari zeure ogitartekoa, badugu berarentzako janaria eta!

TXAKURRA: (AD LIB)

EIDER: Apur bat / besterik ez!

AITA: (OFF) Pentsatu ere ez! / (ON) Zuk zeurea jan behar duzu! / Begira, erabat zikindu dizu! Emaiozu ba txakurrari, beste bat prestatuko dizut.

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Txurik ere parte hartzen zuen Eiderren bihurrikerietan. Elkar maite zuten, eta beti ibiltzen ziren elkarrekin.

AITA: Eskuak garbi eduki behar dira jateko, eta begira nola jarri dizkizun Txurik!

EIDER: Eta zer? Ez da ezer gertatzen.

AITA: Ez dela ezer gertatzen? Hori zuk usteko duzu! Esku hauekin janez gero, zikinkeria guztia sabelean sartuko zaizu, eta gaixotu egingo zara. AMA: Tira, hemen daukat beste bat. Har ezazu, eta oraingoan ez eman Txuriri, dagoeneko bapo jan du eta!

TXAKURRA: (AD LIB)

AMA: Utikan! (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Bazkaldu ondoren, Eider eta Txuri euren jolasekin hasi ziren.

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Gurasoek, euren aldetik, nahiago izan zuten lo kuluxka bat egin. Salto eta barreen artean, Eider eta txakurra urrunduz zihoazen. Hainbeste urrundu ziren, Txoriren zaunka ozenak apenas entzuten ziren. Eta sabela beteta, lo gero eta sakonagoak hartzen zituen Ane eta Mikel.

EIDER: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Eider eta Txuri, konturatu gabe, basoan barrena sartu ziren, bai eta barru-barruraino sartu ere! Gurasoak lasai zeuden lotan: izan ere, Txurirekin zegoenez, Eiderri ezin zitzaion ezer gertatu. / Oraingoan, ordea, gauzak okertu egingo ziren. Txuri konturatu zen gehiegi urruntzen ari zirela, baina Eiderrek konbentzitu egin zuen, eta jolasean jarraitu zuten.

TXAKURRA: (AD LIB)

EIDER: Ez bultza! Lasai, ez gaude-eta hain urrun! Berehala itzuliko gara. (AD LIB) Ezetz aurkitu makilatxo hau!

TXAKURRA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Neskatoak ahal zuen urrunen jaurti zuen makilatxoa, eta ezkutatu egin zen Txuriri adarra jotzeko. A zer sustoa hartuko zuen txakurrak! / Txuri egurrarekin itzuli zenean, ez zuen Eider ikusi. Kezkatuta eta oso urduri, usainka hasi zen han eta hemen. Baina basoko lore eta landareen usainek nahastu egiten zuteneguz, Eiderren gurasoen bila abiatu zen: Eider aurkitu beharra zegoen, ezer txarrik gertatu baino lehen.

TXAKURRA: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Egoerak okerrera egin behar zuen. // Gurasoak nekatuta zeuden, eta, oraindik lo artean, pentsatu zuten Txurik jolastu nahi zuela.

AITA: Mmm! Txuri, utz nazazu bakean!

AMA: Xxxx! Ixo! Mmm! (AD LIB) Txuri, zer dela-eta zarata hau?

EIDER: (AD LIB-AK)

NARRATZAILEA: (OFF) Bitartean, Eiderrek jolasten jarraitzen zuen. Txuri bere atzetik zebilela uste zuen, eta harengandik ezkutatzeko asmoz, korrika egiten zuen norantz zihoan erreparatu gabe. Halako batean, basoaren erdian galduta zegoela konturatu zen. Beldurraren beldurrez, garrasika hasi zen.

TXAKURRA: (AD LIB)

AITA: (AD LIB) Non dago Eider? Eider!

TXAKURRA: (AD LIB)

AMA: Eider, zatoz hona! Gehiegi urrundu zara!

AITA: Eider! Non zaude?

NARRATZAILEA: (OFF) Baina beranduegi zen, Eider, jakin-minak bultzatuta, basoaren bihotzean sartu zen, oso arriskutsua izan zitekeela konturatu gabe.

EIDER: Ama, Aita, Txuri! Lagundu! Galdu egin naiz!

AMA: Eider, Eider! Nahikoa da, irten! Txantxa amaitu da!

AITA: Eider, non zara?

EIDER: Aaaa! Etxera joan nahi dut! Aita, ama! / Txuri, zatozte! Hemen naiz! (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Zorionez, etxe bat aurkitu zuen. / Laguntza eskatzeko asmoz hurbildu zen, baina a zer sorpresa: etxe hartan ez zegoen inor!

AITA: Eider! / Eider! / Non zaude, Eider? / Alabatxo!

TXAKURRA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB) Hemen ez dago inor!

HARTZ AITA: Etxera itzuliko gara, masusta nahikoa bildu dugu eta!

HARTZ TXIKIA: Begira zenbat hartu ditudan!

HARTZ AMA: Masustekin marmelada egingo dugu. Bai?

HARTZ AITA: Bai.

HARTZ TXIKIA: Ongi! Zer dugu afaltzeko?

HARTZ AITA: Zopa gozo-gozoa.

HARTZ TXIKIA: Mmm! Irrikaz nago jateko!

HARTZ AMA: Goazen ba azkar!

HARTZ TXIKIA: Ama, zoparen ondoren, ezta emango didazu?

HARTZ AITA: Bai, baina den-dena jan behar duzu.

AITA: Eider! Eider! (AD LIB) Alaba, non zaude?

AMA: Non zara? Erantzun! (AD LIB) Eider! Erantzun!

TXAKURRA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Eiderren gurasoak oso kezkatuta zeuden: aspaldi ilundu zuen, eta Eider ez zen agertzen!

EIDER: Umm! Bai ondo, daukadan gosearekin! Hau da zortea! Mmmm!

NARRATZAILEA: (OFF) Eiderrek mahaia aurkitu zuen, bertan jesarri eta afaltzeko prest!

EIDER: Nork erabiliko du koilara handi hau? Aho handi-handia izango du. (AD LIB) Nor izango ote da? (AD LIB) Ertaina hartuko dut. Ea ba!

NARRATZAILEA: (OFF) Zopa jaten hasi zen. Baina ez dena, plater bakoitzean zerbait utzi behar zuen-eta jabearentzat!

HARTZ TXIKIA: Hori egina dago. (AD LIB)

HARTZ AMA: Eta gero lotara!

HARTZ TXIKIA: Hori ere egina dago, leher eginda nago eta! (AD LIB) Zer ipuin kontatuko didazue?

HARTZ AMA: Ni ere leher eginda nago, txiki. Gaur hobe duzu zeuk irakurtzea ipuina.

HARTZ TXIKIA: Jo, ez! Mmm! Aita, ipuina zuk kontatuko didazu?

HARTZ AITA: Ikusiko dugu. Lehendabizi, etxera itzuli behar dugu.

HARTZ AITA: (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB) Tira ba, goazen.

AMA: Non zaude? Erantzun! (AD LIB) Ai ene! Ene alaba maitea! Non dago, baina? (AD LIB)

EIDER: Plater txiki honetatik ezin dut askorik kendu; bestela, ezer gabe geratuko da!

EIDER: Orain ertainetik apur bat. (AD LIB) Eta orain handitik. (AD LIB) Hemen bai dagoela zer jana! Hau guztia jango banu, betekada ederra hartuko nuke, lehertzeko modukoa!

NARRATZAILEA: (OFF) Gero eta erosoago sentitzen zen, eta beldurra ahaztu egin zitzaion.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Tira ia heldu gara. Esan bai ala ez!

HARTZ AITA: Ez dakit! Agian gero nekatuta egongo naiz.

HARTZ TXIKIA: Joo! (AD LIB)

EIDER: (OFF) Bapo! Orain, lo txiki bat egin beharko nuke.

HARTZ TXIKIA: Ipuin labur bat baino ez!

HARTZ AITA: (AD LIB) Ez dakidala, ba, seme! Zopa jan ondoren, lokartu ez banaiz, kontatuko dizut.

HARTZ AMA: Lokartuko da! Baietz? (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: Bueno, heldu gara. Garbitu eskuak, seme, eta afaltzera!

EIDER: (AD LIB) (AD LIB) Aha! Hiru ohe! Mmm! Bigunenean egingo dut lo! Ui! Txikiegia! Ba, handienean etzango naiz! / (AD LIB) Handiegia! Orduan ertainean etzango naiz. (AD LIB) Hau logalea!

NARRATZAILEA: (OFF) Bitartean, gure hiru lagun berriak basoan bildutako masustak gordetzen ari ziren lasai-lasai, konturatu gabe etxean beste norbait zegoela!

EIDER: (AD LIB) Hau logalea!

NARRATZAILEA: (OFF) Eider, bere aldetik, oso gustura zegoen! Ez zekien zer sorpresa hartuko zuen etxeko jabeak ezagutzean!

HARTZ AMA: Bihar. Lehenengo uretan garbitu behar dira eta gero azukretan ontzen ipini.

HARTZ AITA: Bai, bihotza.

HARTZ TXIKIA: (OFF) Ni afaltzen hasiko naiz. E? Baina

HARTZ AMA: Tira, garbi daude. Orain

HARTZ TXIKIA: (OFF) (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB)

HARTZ AITA: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Nork ukitu ditu nire zopa eta nire koilara?

Hau nazka! (AD LIB) (AD LIB) Ama, begira nire zopari eta nire koilarari! Norbait ibili da hemen! (AD LIB)

HARTZ AITA: Ez esan lelokeriarik! Guk ez dugu ukitu!

HARTZ TXIKIA: Nik ez dut jango!

HARTZ AMA: Tira, hartu nire platera, eta jan!

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) (OFF) (AD LIB)

HARTZ AITA: (AD LIB) (OFF) (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB) (OFF) (AD LIB)

HARTZ AITA: Seme, esan egia! Zuk zikindu duzu nahita, ez jateko?

HARTZ TXIKIA: Ez, aita, zopa gogoko dut! Orain zer jango dut? (AD LIB)

HARTZ AMA: Ez kezkatu, aitaren platerean soberan dago

HARTZ AITA: Ai! Beti neuretik kendu behar!

HARTZ AMA: zuretzat behintzat.

HARTZ AITA: (AD LIB) Seme, esan egia! Ez duzu zuk nahita zikindu, ezta? / (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB) Nola esan dezakezu hori? Ez da horren gezurtia! Pentsatzea ere!

HARTZ AMA: Zorionez, masustak ekarri ditugu. Nork nahi ditu eztiarekin?

HARTZ TXIKIA: Nik.

HARTZ AITA: (AD LIB) Gogaitu egingo zaituzte! Bestela ere badira nahiko gozoak, ezitia bota beharrik gabe! (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Amak baietz esan du! (AD LIB)

HARTZ AMA: Tira! Afal dezagun lehenbailehen, eta goazen ohera!

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Bihar ezitia biltzera joango gara?

HARTZ AMA: Ez dut uste. Euria egingo duela esango nuke.

HARTZ AITA: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Orduan, zer egingo dugu?

HARTZ AITA: (AD LIB) Goizean pentsatuko dugu. (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Bihar arte!

HARTZ AMA: Ondo lo egin!

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Bihar arte.

HARTZ AITA: Gabon, seme. (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (OFF) (ON) Aaaaaa!

HARTZ AITA: (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Aita! Ama! Munstro bat! Aaaa!

HARTZ AITA: Zer gertatu da?

HARTZ AMA: Zer dira oihu horiek?

HARTZ TXIKIA: Munstro bat dago nire ohean!

HARTZ AMA: Munstroak ez dira existitzen, seme! Ez adarrrik jo!

HARTZ AITA: (AD LIB) Ikus dezagun zerk beldurtu zaituen. Seguru itzalen bat ikusi duzula! (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Ez, aita! Munstro bat ikusi dut! (AD LIB)

HARTZ AITA: Ezin liteke, ez dira existitzen eta! Tira, neu joango naiz

HARTZ TXIKIA: Ama, beldur naiz.

HARTZ AITA: (OFF) (AD LIB) Ikusiko duzu nola ez dagoen E? Zer egiten du honek hemen?

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB)

HARTZ AITA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Hiru hartzak zur eta lur utzi zituen gelan ikusitakoak. Zer zen hura, baina? Eta nolatan sartu zen euren etxera? Hartz txikia beldurrak akabatu behar zuen!

HARTZ AITA: Ez da munstro bat, gizakien kume bat baizik! Galdu egingo zen, eta gure etxean babestu da.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: Lasai, seme, honek ez digu minik egingo.

NARRATZAILEA: (OFF) Gozo -hala zeritzon hartz txikiari- oso urduri zegoen: ezezagun hura nolakoa izango zen?

HARTZ AITA: Zer egingo dugu berarekin?

HARTZ AMA: Nekatuta dagoela dirudi. Utzi lo egiten eta, esnatzen denean, etxerako bidea erakutsiko diogu.

HARTZ AITA: Ongi, Horixe egingo dugu.

EIDER: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Nekatuta zirudien, bai. Lo zerraldo zegoen. / Baina Gozok ez zekien zer pentsatu.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Hartz txikiak ez zuen gau osoan begirik bildu, izaki hari begira.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Esnatu zenean, Eiderrek ezin zuen sinetsi ikusten zuena. Zer zen hura?

EIDER: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Gozoren aurpegia aurrez aurre zeukan, eta hiru hartzek jakin-minez begiratzen zioten.

EIDER: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB) Ai ama! Ezin da izan! Hau amesgaiztoa da!

HARTZ TXIKIA: Ez, ez da amesgaiztoa, benetakoak gara!

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Ez beldurtu, ez gara gaiztoak.

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Hartu, goseak izango zara.

EIDER: (AD LIB)

HARTZ AITA: Bai. Horixe bera egingo dugu, gosaldu, bai jauna! Ni ere goseak nago! Baina ez ohean. Goazen sukaldera, eta bapo gosalduko dugu! Tira!

HARTZ AMA: Zuek garbitu eta orraztu zaitezte. Guk, bien bitartean, gosaria prestatuko dugu.

HARTZ AITA: Ezin da hemen gelditu.

HARTZ AMA: Bai, badakit.

HARTZ AITA: Bere bila etorriko dira.

HARTZ AMA: Bai. Gainera

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: bere gurasoak kezkatuta egongo dira. Etxera eramango dugu.

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: Gozo! Prestatu mahaia. Moztu ogia eta jarri platerean. Har ezazu labana hau, eta kontuz ibili, oso zorrotza dago eta!

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: (AD LIB)

HARTZ AMA: Eider, non bizi zara?

EIDER: (AD LIB) Herrian.

HARTZ AITA: Zein herritan? Ez dakizu izena?

EIDER: Bai, / Izaba.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: Ederki, badakigu non den. Gosaldu eta gero, bertaraino lagunduko zaitugu.

HARTZ AITA: Nolatan heldu zinen honaino?

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AMA: Gozo! Baina, zertan ari zara? Egon geldi!

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

EIDER: Galdu egin nintzen.

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Ez zara esanekoa eta gehiegi urundu zinen, baietz!

HARTZ AMA: Utzi bakean, eta isildu!

HARTZ TXIKIA: Bete-beteen asmatu dut, ez da esanekoa!

HARTZ AITA: Ez zirikatu, aditu duzu?

EIDER: Ezta zu ere! Isiltzeko esan dizute, eta ez zara isiltzen.

HARTZ AMA: Biok ere / antzekoak zarete. Ondo elkarren modukoak!

HARTZ AITA: Amaitutakoan, bion artean egin harrikoa eta ohea. Bitartean, guk etxea txukunduko dugu.

HARTZ TXIKIA: Ohea berak egin beharko du, nik ez baitut erabili!

EIDER: Esanekoa zinela uste nuen! (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: Esanekoa bai, baina ez tontoa! Nik ez dut neure ohea erabili; hortaz, egin zerorrek!

HARTZ AMA: Ondo da. Orduan, zuk nire ohea egingo duzu, han egin baituzu lo!

HARTZ AITA: Berriketa gutxiago eta hasi lanean behingoz, edo hemen geratuko zara zu bakarrik etxea txukuntzen! Aditu duzu?

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Hura ez zitzaion batere gustatu Gozori. Amorratuta zebilen Eiderrekin ohea egiten. Baina, hobeto pentsatu zuen. Neska jatorra zen, eta merezi zuen lagun izatea.

HARTZ TXIKIA: Aizu, / barkaidazu (OFF) ni normalean ez naiz horrela koa izaten, / baina une batez (ON) nire gurasoak nitaz baino gehiago zutaz kezkatzen zirela ikustean ba zera! E...

EIDER: Ez da ezer gertatzen. Lasai, ulertzen dut. Oraindik lagunak izan gaitezke. Jolastuko gara?

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKI: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Lagun handiak egin ziren. Ederki zebiltzan elkarrekin era guztietako jolasetan.

HARTZ TXIKIA: Badakizu, hurrengo batean itzuli egin behar duzu. Oso dibertigarria da bisitak izatea!

EIDER: Bai, nik ere primeran pasatu dut.

EIDER: Gertatzen da zu ezin zarela nire etxera joan, jendea beldurtuko litzatekeelako!

HARTZ TXIKIA: Horregatik, zuk etorri beharko duzu hona!

EIDER: Ondo da, itzuliko naiz. (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: Hemendik ondo goaz?

HARTZ AMA: Bai, gizona. Segi, segi!

NARRATZAILEA: (OFF) Hurrengo egunean, goizean goiz eta tentu handiz ehiztariak ez harrapatzeko, Harkaitzek, Ilargik eta Gozok basoko mugaraino lagundu zioten Eiderri.

HARTZ AMA: Agur, Eider! (AD LIB)

HARTZ AITA: (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: Hemen utziko zaitugu. Ezin gara herrira joan, ehiztariek harrapatuko gintuzkete eta!

HARTZ AMA: Agur, laztana! Badakizu non gauden, baina ez esan inori!

HARTZ TXIKIA: Ikusi arte! Ez ahaztu bisita egitea!

EIDER: Hitz ematen dizuet, bisitan joango naiz! (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

HARTZ AITA: Baina, ez etorri neguan, ados?

HARTZ TXIKIA: Horixe! Jakingo duzunez, guk negua lotan ematen dugu.

EIDER: Lasai, esna zaudetenean etorriko naiz, Agur!

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Agur!

HARTZ AMA: Agur! (AD LIB)

HARTZ AITA: Agur! (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Triste eta penatuta gelditu zen Gozo. Hala ere konturatzen zen Eiderrek gurasoekin egon behar zuela. Gainera, nor esaten zion ez zuela berriro ikusiko?

HARTZ TXIKIA: (AD LIB) Oso atsegina da. Gizaki guztiak horrelakoak dira?

HARTZ AMA: Ez pentsa! Batzuk ehiztariak dira, eta horiekin ezin gara ondo konpondu. / Ezta?

HARTZ AITA: Bai, hala da.

HARTZ AMA: Tira, joateko ordua dugu.

HARTZ TXIKIA: Eta neska horren familiakoak ehiztariak badira?

HARTZ AITA: Ez die non bizi garen esango, gure laguna da eta! (AD LIB)

HARTZ TXIKIA: (AD LIB)

AMA: (AD LIB)

NARRATZAILEA: (OFF) Ane oso triste zegoen. Gau osoa bila eman arren, ez zuten alabaren arrastorik aurkitu. Baina, bat-batean

EIDER: Ama, ama! (AD LIB)

AMA: Alaba maitea! (AD LIB)

AITA: Eider! Jainkoari eskerrak! (AD LIB)

AMA: Non izan zara? / (AD LIB)

EIDER: Galdu egin naiz, ez dakit zehazki non izan naizen.

AMA: (AD LIB)

AITA: (AD LIB)

EIDER: Zuhaitz baten azpian egin dut lo.

Aita: Ene! (AD LIB)

EIDER: Eta eguzkia irten denean, etxerako bidea aurkitu dut.

TXAKURRA: (AD LIB)

AMA: Jan duzu ezer? Gosaldu duzu?

EIDER: Bai, bidean marrubiak aurkitu ditut.

AMA: Zorte handia izan duzu ba.

EIDER: Bai, ama, oso handia. (AD LIB)

AMA: Ene alabatxo maitea! (AD LIB) Begira, biak lotan daude! (AD LIB)

EIDER: (AD LIB)

TXAKURRA: (AD LIB)

## **BIBLIOGRAFIA.**

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea.

Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco.

Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea.

Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

[www.Zernola.net](http://www.Zernola.net): Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

**EGILEAK**

**GOIATZ  
MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**  
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**  
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**  
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**  
Mikel Val

**SOINU BANDA:**  
Inhar Val

**EDIZIOA:**  
Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

**K 2 0 0 0 S . A .**

**Produktore exekutiboa:**

Tomas Ugalde

**Euskarako arduraduna:**

Josu Varela

**Bikoizketako zuzendaria:**

Alvaro Sánchez

**Sarrerako kanta:**

Ana Tere Bengoetxea

**Ahotsak:**

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

**Audioko teknikariak:**

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

**Nahasketak:**

Gorka Lara

Juan C. Cantera

**Produkzioko laguntzailea:**

Ana Urresti

**Koordinatzailea:**

Jon Arce

# **EIMA 2000**

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailaren egokitasun-aitormena du:  
2004-06-25**

**LEGE GORDAILUA: : SS-1591/03**

**L.C. PRODUKTOREA  
tel.: 945-230715**